

TRADIZIOA ETA MODERNITATEA 50EKO HAMARKADAN

Tesiaren egilea: Pako Sudupe Elortza

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Jon Kortazar eta Joxe Azurmendi

Tesiaren laburpena:

Tesi honetan 50eko hamarkadako euskarazko kultura aztertu da, bi gerra anker jasan ondoan nekez landua. Autore batzuen izenak ezagunak dira (Orixe, Zaitegi, P. Lafitte, E. Salaberry, etab.), baina orduko haien obra askoz gutxiago ezagutzen da, eta batez ere bigarren mailako beste autore asko guztiz ezezagun dira. Ez zaio alferrik aldi horri «katakombetako aroa» deitu. Tesi honen helburua garai hori argitara ateratzea izan da.

Egun aski ezezagunak diren material idatziak —liburuak urri, kazetak ugariago, eta elkarri egindako gutun aski ugariak proportzioan— lau literatur generotan sailkatu ditut: olerkigintza, antzerkigintza, kontagintza, eta kazetaritza nahiz saiakeragintza.

Lau kapitulu horien aurretik literatur euskararen batasunari eskaini diogu lehen kapitulua, hamarkada guztian arazo handia izan baitzen literatur ereduarena. Alor berriak landu nahi ziren euskaraz, eta literatur eredu batu bat finkatu gabe izateak oztopoak are oztopoago bilakatzen zituen. Astiro aztertu ditugu, besteak beste, F. Krutwigen lapurtera klasikoaren aldeko oldarraldia, J. Zaitegiren asmo handiak 1955eko urte hondarrean aberrira itzultzean, eta K. Mitxelenaren kritika-lan axolazkoa euskara batura eramango zuen bilakaera ibiltzeko.

Olerkigintzak lantzaile ugari izan zuen. 31 olerkari berezi ditugu, eta hona hemen nabarmenenak: Orixe, S. Mitxelena, B. Gandiaga, Iratzeder, N. Etxaniz eta G. Aresti. Poetikari dagokionez, gerra aurrekoa indarrean da alde batetik, Lizardik eta Lauaxetak eragiten jarraitzen baitute, baina beste ideia nagusi bat gailentzen da: olerkariak bere barne-egia azaldu behar du, hamarkadan garrantzi handia izan zuen existentzialismoarekin zerikusi estuan.

Antzerkigintzak Iparraldean hamarkada aberatsa izan zuen; apalagoa Hegoaldean. Idatzi gehiago egin zen, antzeztu baino. Aztertu ditugun autoreak honako hauek dira: P. Larzabal, T. Monzon, P. Guilsou, M. Elissagaray, A.M. Labaien, N. Etxaniz, J. Etxaide eta S. Mitxelena. Lehen zatian, Bigarren Mundu Gerrak eta 1936ko gerrak izan zuten beren antzerkia; Iparraldean euskaltasuna euskal pertsonaia historikoak gaitzat harturik aldarrikatu zen, eta Hegoaldean 36ko gerra aurrekoak antzeztu ziren gehienbat; garaiari hobekien lotzen zitzaizkionak ezin izan ziren taularatu, arrazoi politikoengatik.

Kontagintzan, herri-ipuin, alegia eta kontakizunetatik ipuin modernoetara egin zen, eta hamarkadaren hondarrean bost eleberri idatzi ziren denbora gutxian. Txillardegi, J. Mirande, J. Etxaide, E. Erkiaga, J. Etchepare, J.A. Loidi eta G. Aresti izan ziren nabarmendu zirenetako batzuk. Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* izan zen hamarkadako eleberririk enblematikoena. J. Miranderen *Haur besoetakoa* ere hamarkada horretan idatzi zen, nahiz argitaratu ez.

Prosalariei dagokienez, hogeita hamabi berezi ditugu. Horietatik gailendu zirenetako batzuk honako hauek izan ziren: Orixo, K. Mitxelena, L. Villasante, J. Mirande, Txillardegi, J. Zaitegi, A. Ibinagabeitia, P. Lafitte, E. Salaberry, J. Intxausti. Kapitulu hau idazten ari, ohartu gara eztabaida jakingarriak gertatu zirela zenbait gaiez (gizakiaren sorreraz, H. Bergson filosofoaz, humanismoaz, euskara eta liburu lizunez, existentzialismoaz, Europa eta euskaldunez), eta kapitulu beregain batean arakatu ditugu.

Ahazmenetik ateratako materiala analizatzean, gaurdaino idazle eta idatzi haiez aztertu dena biltzen ahalegindu gara, eta, aurreko azterketarik aurkitu ez dugunean, geure azterketa erantsi dugu, ez monografikoa, jakina, baizik eta oinarrizkoa, hartan bermaturik ondorengoek monografikoak egiteko lantegia eskurago izan dezaten.

Aipatutako sei kapitulu horien ondotik, ondorioen atala bururatu dugu, hiru elementu ardatz harturik: kronologia, garrantzia eta lurraldetasuna (Ipar eta Hego Euskal Herria).